

AZTERLAN ETA PROIEKTUEN LEHIAKETARAKO LEGE-OINARRIAK

Zahartze aktiboaren eta belaunaldien arteko harremanen inguruko gradu eta ziklo amaierako lanen BBKSASOIKO SARIA

2021eko deialdia

“Berrikuntza-proposamenak”

1.- HELBURUA

Dokumentu honen bidez, zahartze aktiboaren eta belaunaldien arteko harremanen inguruko gradu eta ziklo amaierako lanen BBKSASOIKO sarien lehen edizioaren terminoak eta baldintzak jakinarazten dira.

Sari honen bidez, gradu-amaierako ikasleen lanak, zahartze aktiboaren eta belaunaldien arteko harremanen esparruan ikerketak egiten eta ezagutza transferitzen laguntzen dutenak, aintzatetsi eta zabaldu gura dira; ikasleek Lanbide Heziketaren eta Gradu Unibertsitate Prestakuntzaren esparrukoak izan behar dute, Lanbide Heziketako edozein ikastetxetan, edo Bizkaiko Lurralde Historikoan zentroak edo campusak dituzten unibertsitateetan.

Jakintzaren eta garapen teknologikoaren eremu guztietako proposamenak aurkeztu ahal izango dira. Bi kategoria proposatzen dira:

- Lanbide-heziketako ziklo-amaierako proiektuen kategoria.
- Unibertsitate-gradu amaierako lanen kategoria.

BBK SASOIKO Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria - Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioak (aurrerantzean, "BBK") sustatutako proiektua da, eta BBK SASOIKO gunea sortu du, lan-etapa amaitzen ari diren baina aktibo jarraitu, gizarteari ekarpenen bat egin eta autorrealizatu gura duten pertsonen parte-hartzea sustatzeko eta horientzat jarduerak eskaintzeko. Azken batean, proiektu honek, lan-bizitza amaitu eta gero ere, pertsonen etapa sozialki emankorra luzatu ahal izatea bilatzen du.

Zahartu ahala pertsonen parte-hartze soziala eta belaunaldien arteko harremanak modu berritzailean sustatzeko BBKSASOIKO proiektuaren helburuak dira, besteak beste, Nazio Batuen Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) zahartze aktiboaren arloan 1982an ezarri zituen oinarrien inguruan sentsibilizatzea, eta horiek sustatzen eta ezartzen laguntzea.

BBKSASOIKOK, bere konpromisoari erantzunez, adineko pertsonen parte-hartze sozialaren sustapen hori goi-mailako irakaskuntzako ikasleen kolektibora bideratu gura du, eta zahartze aktiboaren eta belaunaldien arteko harremanen arloa sustatu eta horren inguruko sentsibilizazioa lortu nahi du Lanbide Heziketan ziklo-amaierako eta unibertsitatean gradu-amaierako lanak egiten dituzten pertsonen artean.



Gure ustez, bere ikaskuntza-prozesuaren hain fase erabakigarrian dagoen talde potentzial hori sensibilizatzea lagungarria izango da zahartze aktiboaren paradigmarekin, haren oinarriekin eta belaunaldien arteko harremanekin bat datozen gaiak eta ikuspegiak sustatzeko. Etorkizuneko profesionalak zahartze aktiboaren paradigmaren murgiltzen badira, zahartze-prozesuei buruzko haien ikuspegia eta ulermena zabaltzen lagunduko dugu; izan ere, prozesu horiek markatuko dituzte, neurri handi batean, gure gizarteko gai asko datozen hamarkadetan.

Beraz, BBKSASOIKO sariak honako helburu hauek dituzte:

- Unibertsitate-ikasleen Gradu Amaierako Lanak eta Goi-mailako Heziketa Zikloetakoen Ziklo Amaierako Proiektuak aintzatestea, zahartze aktiboa eta belaunaldien arteko harremanak sustatzera bideratutako ikuspegia baldin badute.
- Adineko helduen talentu, ahalmen eta beharrezanekiko goi-mailako irakaskuntzako ikasleen interes eta konpromisoaren balioa nabarmentzea.
- Ikasleen ikaskuntza sustatzen duten ikastetxeen eta gizarte-erakundearen inplikazioa indartzea eta zabaltzea, komunitatearen bizi-kalitatea hobetzeko diren ekintza solidarioekin.
- Hezkuntza-sistemarekin lankidetzan aritzea, heldu adinekoenganako jarrerak eta portaerak aldatzea erraztuko duten edukiak eta mekanismoak emanaz, estereotipo negatiboak gaindituz eta XXI. mendeko adinekoren gizarte-iruditeria berria ikusgai egiten lagunduz.

Aurkezten diren lanak eredu teorikoetatik hasi eta prototipoetaraino irits daitezke, zahartze aktiboa eta belaunaldien arteko harremanak susta ditzakeen edozein esparrutan. Horregatik, lehiaketara aurkezten den lan bakoitzaren justifikazioa oso garrantzitsua izango da kontuan hartua izateko, aurrerago jasotzen den legez, bermatuta ekarri beharko duen balio akademikotik harago.

Lehiaketa honetan parte hartzea doakoa da.

2.- ANTOLATZAILEA

Lehiaketa honen antolatzailea Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria - Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa da, Identifikazio Fiskaleko Zenbakia G 48412720 duena, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatua, F-375 erregistro-zenbakiarekin, Laugarren Atalean; eta egoitza soziala hementxe du:

On Diego Lopez Haroko Kale Nagusia, 19-21
48001 Bilbo (Bizkaia)

3.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Oro har, BBKSASOIKO 2021 Sarian Lanbide Heziketako ikasleek parte hartu ahal izango dute ziklo-amaierako proiektuan, eta Unibertsitate Graduako ikasleek gradu-amaierako lanean.

Bi kasuetan, lanek ezaugarri hauek izan behar dituzte:



- a) 2021ean epaimahai akademiko baten aurrean defendatutako lanak, baldin eta kalifikazioa 'nahikoa' edo handiagoa badute.
- b) Lana defendatu duen ikastetxea edo campus akademikoa Bizkaiko Lurralde Historikoan egotea.
- c) a) baldintza betetzen bada baina ez b) baldintza, lanaren titularra Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egotea.
- d) Hautagaiak banaka edo gehienez ere lau pertsonako taldetan aurkeztu ahal izango dira.
- e) Kasu guztietan, lanaren nota edo kalifikazioaren ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da.

4.- PARTE HARTZEKO MEKANISMOA

Proposamenak aurkezteko, parte-hartzaileek <https://www.bbk.eus/es/proyectos/bbk-sasoiko/> orrian horretarako prestatutako inprimaki edo formularioa bete beharko dute, eskatutako datuak eta informazioa emanaz eta honako alderdi hauek kontuan hartuta:

- A. Lana eta haren eranskinak pdf formatuan bidaliko dira. Dokumentuak ez du inola ere egilea identifikatzen utziko, baizik eta lelo edo izengoiti batekin aurkeztuko da. Dokumentu guztiak zip formatuan konprimituko dira, izena emateko formularioan eransteke.
- B. Lanean, baita garapen-testuan ere, datu horietakoren bat agertzen bada, aurkeztutako hautagaitza baliogabetu ahal izango da.
- C. Prototiporen bat baldin bada, ahal izanez gero, BBKSASOIKO zentroan utziko da aldi baterako, eta lehiaketa amaitu ostean itzuli egingo zaio haren egileari. Ezin bada BBKSASOIKOren lokaletan utzi, ikastetxea harremanetan jarriko da BBKSASOIKOrekin, epaimahaiko kideak bertara joan daitezten proposamena *in situ* ebaluatzeraz.
- D. Azterlan eta proiektu guztiek jatorrizkoak edo jarduera akademiko edo ikerketa-jarduera baten garapenekoak izan beharko dute. Gutxienez 15 orrialde eta gehienez 50 orrialde izango dituzte DIN A4 formatuan, leerroarte bakunarekin eta 11 puntuko letra-tamainarekin. Egoki iriztitako beste eranskin gehitu ahal izango dira. Horiek edukiak oinarritzko testuaren argigarri edo osagarri izan behar du soilik.
- E. Lanak euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dira, eta, edozelan ere, hasieran laburpen edo "abstract" bat jasoko dute, bi hizkuntzetako batean edo bietan.
- F. Parte hartu ahal izateko, ezinbesteko baldintza izango da Oinarri hauek eta Pribatutasun Politika onartzea.

5.- AURKEZTEKO EPEAK

Parte-hartzaileek **2021eko maiatzaren 1etik 2021eko uztailaren 15eko** 23:59ra arte aurkeztu ahal izango dituzte beren azterlan eta proiektuak.

Adierazitako data eta ordu horren ostean jasotako proposamenak ez dira lehiaketan onartuko.

Era berean, eskatutako gutxieneko edukiak betetzen ez dituzten proposamenak ez dira lehiaketan onartuko.



6.- SARIAK

HIRU izango dira proiektu irabazleak eta HIRU azterlan irabazleak. Horietako bakoitzaren titularrak diren pertsona parte-hartzaileek sari hauek jasoko dituzte:

- Lehen lan irabazlea: 1.000€ko saria
- Bigarren lan irabazlea: 500€ko saria
- Hirugarren lan irabazlea: 300€ko saria

Sei lan irabazleen zabalkundea BBK-k egingo du, webgune korporatiboaren bidez eta BBK SASOIKO proiektua sustatzeko erabili ohi diren beste bitarteko batzuen bidez.

Goian adierazitako sariez gain, diru-sari bako ohorezko 2 aipamen egin ahal izango zaizkie kalitate eta interes berezikotzat jotzen diren beste lan batzuei (2 gradurako eta 2 Lhrako).

Era berean, Oinarri hauetan ezarritako eskakizunak bete dituzten pertsona eta erakunde parte-hartzaile guztiak izendatuko dira.

BBK-k ez du ardua edo erantzukizunik izango erakunde eta pertsona irabazleek sariak zabarkeriaz edo legez kanpo erabiltzen badituzte. Sarituek beren gain hartuko dituzte indarrean dagoen Espainiako zerga-legeriak izaera honetako sarietarako ezartzen dituen betebeharrak.

Epaimahaiak beretzat gordetzen du sarietakoren bat edo guztiak eman barik uzteko eskubidea, baldin eta partaidetza-mailak ez baditu betetzen gutxieneko kalitate- eta garapen-baldintzak.

7.- BALORAZIO-IRIZPIDEAK

BBK SASOIKOko zahartze aktiboko adituek eta teknikariek osatutako epaimahai batek baloratuko du aurkeztutako proposamenen edukia, 1. eranskinean zehaztutako balorazio-irizpideen arabera.

Oro har, epaimahaiak honako gai hauek hartuko ditu kontuan:

- Zorroztasuna gaia aztertu eta proposamenak argudiatzerakoan.
- Sormena eta berritasuna planteamendu orokorrean.
- Proposatutako ikuspegira egokitzea.
- Diziplina edo jakintza-arloen arteko planteamendua.
- Abian jartzeko berehalakotasuna eta heldu adinekoen kolektiboan izan dezakeen eragina.

BBK-k eskubidea izango du Lehiaketatik lanak kentzeko, bereziki: (i) Oinarri hauek edozein modutan betetzen ez edo urratzen dituzten gaiak eta ezaugarriak dituztenak; (ii) eduki ez-zilegiak edo fede onaren eta ordena publikoaren aurkakoak dituztenak; (iii) arrazistak, xenofoboak edo giza eskubideen aurkakoak direnak; (iv) BBKren edo hirugarrenen irudiaren eta ospe onaren aurkakoak direnak; (v) BBKri edo hirugarrenei dagozkien jabetza intelektual eta/edo industrial, irudi, ohore edo bestelako eskubideen aurkakoak direnak.

8.- SARITUEI JAKINARAZTEA



Epaimahaia kategorია bakoitzeko 5 proiektu finalistekin jarriko da harremanetan, eta horiek sariak aldarrikatzeko eta banatzeko ekitaldira joango direla baieztatu beharko dute. Saria aldarrikatu eta emateko ekitaldira joatea ezinbesteko baldintza da aurkeztutako proiektuagatik saritua izateko.

Finalistak ezin badira aurkitu edo gure jakinarazpenari 2021eko irailaren 20a baino lehen erantzuten ez badiote, sariari uko egiten diotela ulertuko da. Kasu horretan, saria beste parte-hartzaile bati ematea edo eman barik uztea erabaki ahal izango du epaimahaia.

Horretarako, eta saritua izateko ezinbesteko baldintza izanik saria jasotzera joatea, gehienez bost finalista deituko dira talde bakoitzeko (5 Lanbide Heziketan eta 5 Gradu Amaieran).

9.- DATU PERTSONALAK

Ikus "Pribatutasun Politika" <https://www.bbk.eus/es/proyectos/bbk-sasoiko/> webgunean eta klausula espezifikoak proposamen-aurkezpenak jasotzeko formularioan.

10.- KONFIDENTZIALTASUNA

BBK-k zuzenean edo zeharka parte-hartzaileen eskura jarritako informazio, dokumentazio, software, gaikuntza-material eta teknika guztiak konfidentzialtasun osoz tratatuko dituzte parte-hartzaileek, eta parte-hartzaileak ezingo die hori hirugarrenei jakinarazi, ezta berak, edo beraren izenean, ustiatu ere.

11.- IRUDI- ETA JABETZA-ESKUBIDEAK

Pertsona eta erakunde parte-hartzaileak izango dira bai Lehiaketara aurkeztutako proposamenen eta materialen edukien Jabetza Intelektualaren eta bai horiek argitaratzeko beharrezkoak diren (batez ere ikasleen gurasoen/tutoreen) baimenak lortzearen arduradun bakarrak eta eskusiboak, Oinarri hauetan aurreikusitako baldintzetan.

Lehiaketara aurkeztutako materialak BBK-k argitaratu eta eskuragarri jarri ahal izango ditu edozein formatu eta modalitatetan, bai inprimatuta, bai elektronikoki (webgunean, sare sozialetan, etab.), mundu osoan eta edozein hizkuntzatan, bere eskura dituen komunikabide guztien (webgune, sare sozial...) bidez, bai Lehiaketaren beraren esparruan, bai lehiaketatik kanpo. Parte hartze hutsagatik, BBK-k ustiapen hori egokien deritzon moduan egiteko baimena du, modu ezeztazinean; eta ondorio horietarako, dagozkion eskubideak lagata dituela ulertuko da, betiere iturria aipatuz.

Parte-hartzaileek bermatuko dute beren lanen jatorria aurrez argitaratu bakoa eta beren adimenaren emaitza baino ez dela, borondatez ematen direla eta ez dituztela hirugarrenen eskubideak urratzen, edo, hala badagokio, parte hartzeko beharrezko baimenak dituztela; beraz, lan horiek hirugarrenen egile-eskubideak urratu edo usurpatu barik egingo dira, jabetza intelektualaren eta/edo industrialaren eskubideei (marka, patente, egile-eskubide eta abarri) dagokienez inolako gatazka barik.

Ondorioz, parte-hartzaileek konpromisoa hartzen dute BBK kalte barik mantentzeko beren proposamenen bidez hirugarrenei eragindako arau-hausteei buruz, eta parte-hartzaileak oso-osorik bere gain hartuko du hirugarren horien alde sor daitekeen edozein kostu, baita legezko ordezkari-tza-kostuak ere.

BBK-k proposamen bat onartzeak edo sari bat emateak ez dakar berekin proposamenaren originaltasunari buruzko ezelango onarpen inplizitu edo espliziturik.

Lehiaketa honen antolaketari dagozkion eskubide guztiak BBKrenak dira.

13.- TERMINOAK ETA BALDINTZAK ONARTZEA

Azterlan eta proiektuen lehiaketan parte hartzeak nahitaez dakar legezko oinarri hauetan adierazitako terminoak eta baldintzak, baita horietaz BBK-k egiten duen interpretazioa ere, oso-osorik eta baldintza barik onartzea.

Epaimahaiaren erabakiak ere onartu beharko dituzte parte-hartzaileek, lehiaketako finalistak eta irabazleak aukeratzeari dagokionez.

Oinarri hauek dira BBKren eta azterlan eta proiektuen lehiaketan parte hartzen dutenen arteko akordio bakarra, eta haien inguruan alderdi horien artean aurretik egindako edozein akordioen ordezkioak dira.

BBK-k eskubidea izango du, edozein arrazoiengatik, lehiaketa deuseztatzeko, atzeratzeko, eteteko eta/edo luzatzeko, bai eta oinarri hauek guztiak edo batzuk aldatzeko ere, horregatik erantzun beharrik barik, eta horren berri modu egokian emango du <https://www.bbk.eus/es/proyectos/bbk-sasoiko/> webgunearen bidez.

Lehiaketaren edukiarekin edo proiektuen aurkezpenarekin lotutako zalantzak argitzeko edo kontsultak egiteko, parte-hartzaileek mezu elektronikoko bat bidal dezakete honako helbide honetara: sasoiko@bbk.eus

Lehiaketari buruzko kexak kontuan hartu ahal izateko, idatziz aurkeztu beharko zaizkio BBKri sasoiko@bbk.eus helbidean, Lehiaketan parte hartzeko azken egunetik hilabete igaro baino lehen.

I. ERANSKINA: BALORAZIO-IRIZPIDEAK

BBK SASOIKOko zahartze aktiboko espezialistek eta teknikariek osatuko dute epaimahaia; kideak nor diren ez da argitara emango antolatzaileak egoki irizten ez dion bitartean, eta lan finalistak eta irabazleak hautatuko ditu, balorazio-irizpide hauek kontuan hartuta:

BALORAZIO-IRIZPIDEA	DESKRIBAPENA	PUNTUAZIOA
ZAHARTZE AKTIBO OINARRIAK	Proiektuaren justifikazioa zahartze aktiboaren eta belaunaldien arteko harremanen OINARRIEKIN	Otik 5 puntura
IDEIAREN BIDERAGARRITASUNA	Teknikoki EGINGARRIA Beharrezko BALIABIDE bideragarriak	Otik 5 puntura
EGIN GURA DIREN LORPENAK	Adinekoen AHALMENAK, TALENTUA ETA PARTE-HARTZE SOZIALA GARATZEN laguntzea	Otik 5 puntura
SEKTORE AHULAK	Adinekoen kolektiboko SEKTORE AHULENEN (mendekoen, etorkinen...) autonomiari eta bizimodu independenteari buruzko sentsibilitatea duten sektoreak	Otik 5 puntura
TRATU ONAREN IRIZPIDEAK	Adinekoen kolektiboari ematen zaion arreta oro har mendeko edo zerbitzuen hartzaile huts gisa identifikatzen dituen ESTEREOTIPO BARIK ematea	Otik 5 puntura
BELAUNALDI ARTE-KOTASUNA	Adinekoen eta BIZITZAREN BESTE ETAPA BATZUETAN DAUDENEN ARTEKO ERLAZIOA esan gura duena	Otik 5 puntura
PROPOSAMEN-BERRIKUNTZA	Proposamen berritzaile eta sortzaileak, orain arte ezagututako irtenbideak ez bezalakoak bilatzeagatik.	Otik 5 puntura

Parte hartzen duten erakundeek aurkeztutako proposamenak gehienez ere 35 punturen arabera baloratuko dira, eta baloratuak izateko gutxienez 15 puntu lortu beharko dituzte.